

# ENRAIZA DERECHOS 01 KOADERNOA:

# ELIKAGAI- ETA NUTRIZIO- SEGURTASUNA SENEGALEN



## NIOMRÉ, LOUGA ESKUALDEA

Louga eskualdea Senegalgo hiriburutik (Dakar) 200km ipar-mendebaldera dago.

Klima saheldarra<sup>1</sup> da, hau da, egunean zehar tenperatura oso altua da: 32-36 gradu batez beste; eta urtean zehar

**prezipitazioak oso ahulak dira:** urteko 350mm batez beste (Euskadin, urtean, batez besteko prezipitazioa 1600mm-koa da). Bi urtaro daude: eurien urtaroak hiru hilabete irauten du batez beste, uztailetik irailera, eta urtaro lehorrak urritik ekainera. Hilabeterik euritsuenean, abuztuan, urteko prezipitazioen % 34 biltzen da.

Eskualdean oso ekosistema anitza dago: akazien eta baobaben familiako zuhaitz eta zuhaixka arantzadunak eta tamaina txikiko animaliak (untxiak, hegaztiak, eperak,



urtxintzak, etab.). Lurrak Dior motatakoak dira (burdintsu tropikala), humus gutxiak eta ura gordetzeko gaitasun txikia dute. Beraz, landareen hazkunde eta garapena nahiz nekazaritza-emankortasuna oso txikiak dira. Belar-estaldura ez denez solidoa, euriteen aldia baino lehen (apiriletik ekainera) haizeak eta hautsak eragindako arazoak larriagotu egiten dira: zuhaitzak eraztea, haize-erosioa eta duna gorrien agertzea.

OMEn esanetan COVID-19aren osasun-krisiak gehien eragindako eskualdeetako bat da, eta nutrizio-larrialdiaren atalasea ere gainditu du. Bertan, **Niomré** udalerria dago.

<sup>1</sup> Sahel Afrikako eskualde geografiko bat da, zehazki, Saharako basamortuaren iparraldearen eta hegoaldeko eskualde hezeen arteko trantsizio-lerroan dagoena.

**Udalerrian, elikaduraren egoera larria da**, eta zenbait faktoreren ondorioz, okerrera egin du, hala nola hondamendi naturalen (lehortea eta uholdeak), krisi ekonomiko eta finantzarioen eta COVID-19aren ondorioz.

Udalerrian 47 komunitate bizi dira, eta denera 30.000 herritar inguru ditu; gehienak **wolof eta peulh** etniakoak izanik. Wolofak nekazaritza bizi dira neurri handi batean; Peuhlak, aldiz, herri nomadak dira, eta batez ere abeltzaintzatik bizi dira.

Eremu horretako herritar gehienak **musulmanak dira**, eta kofradia bateko parte dira. Kofradien helburua da horren sortzailearen (kofradia bakoitzak berea izanik) irakaskuntza mistikoa mantentzea eta hedatzea; izan ere, erreferente moral eta erlijiosoak dira. Hortaz,  **nolabaiteko eragina eta boterea dute bitarteko sozial, politiko eta ekonomikoetan**.

Horrez gain, komunitate bakoitzean **herrixkako buru bat** dago; oro har, herrixka sortu zuten familietako bateko gizon heldua da; estatu-mailako ordezkaria da tokiko mailan, eta udalerriko ordezkari modura ere jarduten du. Bestalde, udalerrian **kontseilu** bat dago, sufragio unibertsal bidez hautatzen dena. Kontseilu horiek parekideak izan ohi diren arren, ardura-postu guztiak gizonen esku daude, eta, ondorioz, erabaki politiko, ekonomiko eta sozialak hartzeko orduan, **emakumeek oso ordezkartza eta parte-hartze txikia dute**.

## NEKAZARITZA ETA BALIABIDE NATURALAK

Jarduera ekonomiko nagusia nekazaritza da, eta ekoizpen-sistema **kakahuete, artatxiki, niébé, manioka eta basartoaren** laborantzan oinarritzen da batez ere; izan ere, erein daitezkeen lurren %90 baino gehiago hartzen dute, eta herritarren %90 inguru horretaz bizi da.

Azken urteotan, **laborantzaren urteko ekoizpena jaitsi egin da**. Klima aldaketa (desertifikazioa, prezipitazio gutxi eta irregularrak) neurri batean horren eragile izan den arren, beste arrazoi batzuk ere daude: lurzorua nariadura, kontsumo-joerak, ingurumen-hezkuntza eskasa, gazteek hiriguneetara migratzea eta ura aurrezteko, lurzorua birsortzeko eta errendimendua hobetzeko nekazaritzako teknika modernoak gabezia.

Laborantza-ereduek zenbait laboreren errendimendua eta nutrizio-balioa murriztea aurreikusten dute datozen urteetako tenperatura altuen ondorioz, hala nola kakahuetearena. Gainera, euri faltak gehiegizko larratzea, ur-horniduren gaineko presioa, abereentzako janaria erosteko beharra eta elikagaien prezioen igoera ekar ditzake.

Aurrekoari gehitu behar zaio **produktuak manipulatzeko, kontserbatzeko eta eraldatzeko teknikan prestakuntza falta dela eta teknika horiek erabiltzeko tresna gutxi** dituztela. Horrek guztiak ondorio negatiboak ditu etxebizitzaren diru-sarreretan, eta pobrezia-maila eta elikadura-ziurgabetasuna areagotu ditu. Hala bada,



Niomré-n emakume nekazariak dira agente nagusiak beren familien elikadura- eta nutrizio-segurtasuna bermatzeko.

elikadura, osasuna, hezkuntza eta ingurumen osasuntsua bermatzen dituen giza-eskubideak urratu egiten dira.

Gainera, **wolof etniako emakume nekaraziek beren eskubideak egikaritzeko, lurak eta ekoizpen-baliabideak izateko** (esaterako, haziak, ongaria, agrokimikoak eta materiala) **eta merkatura iristeko oztopo gehigarriak dituzte**. Kate-maila guztietan parte hartzen duten arren, alegia, lurak prestatzetik eta erietetik uzta eta garraiora arte, emakumeek jardura horiei lotutako diru-sarreraren % 10 baino gutxiago jasotzen dute. Halaber, **ez dituzte ekoizpena eraldatzeko teknikak ezagutzen**, batez ere, niébé eta artatxikia eraldatzekoak.

Ur eskasia da inguru horretako beste arazo larrietako bat. Euriteen ostean sortzen diren behin-behineko **urmaelak** mugatuak dira, eta **eurien urtaroa amaitu eta bi hilabeteren ostean lehortu egiten dira**; beraz, abereak eta tokiko fauna urez hornitzeko zailtasunak areagotu egiten dira.

Etxean ura erabiltzeko, garbitzeko eta bainatzeko adibidez, 200 metro baino gehiagoko sakoneran modu industrialean induskatutako lurpeko 5 putzu erabiltzen dituzte; hala ere, **kalitate txarreko ura da** eta herritarrek ez dute bereziki gustuko. Gehienez 30 metroko sakoneran eskuz sortu diren eta edateko eta janaria prestatzeko kalitate handiagoko ur gezako putzuak ere badauden arren, hauetatik ura eskuz atera behar da, eta, ondorioz, zaila da horietara iristea. Herri handi batzuetan, hornidura-enpresa publikoak ur edangarriko iturriak ezartzen ditu (borneak). Tamalez, iturri horiek komunitate askotatik urrun daude, eta uste da **herritarren %50 baino gutxiagoren eskura daudela**.

Nolanahi ere, bideragarria den aukera bat ezartzen ari da: **Keur Momar Sarr-eko SEN-EAU ur edangarriko konexio-sarea**. Udalerriaren iparraldean eta ipar-mendebaldean dauden zenbait komunitate dagoeneko Guer lakutik elikatzen den sare honetara konektaturik daude, eta horri esker, ur edangarria lortzeko herritar askok duten arazoa konpondu ahal izango da etorkizun hurbilean.

# ELIKADURA

Familia-ustategiek elikadura egokia emateko duten gaitasuna 6 hilabete ingurukoa bada ere (urtean 3 hilabetera arteko murrizketekin), familia gehienek egunean hiru aldiz jaten dute. Hala eta guztiz, **otordu horietako batzuek ez dute nutrizio-balio handirik**.

Gosaltzeko, familia osoarentzako ogi zati bat jaten dute, gurinarekin, gaztarekin edo niébéz egindako saltsarekin eta kafearekin batera. **Haur askok ez dute esnerik edateko**. Eguerdian, *thieboudienne* arroza kontsumitu ohi da proteina batekin (arraina edo oilaskoa). Eta, afaltzeko, soilik familia pribilegiatuenean dute arrozari edo kuskusari proteina edo barazkiak gehitzeko aukera.

Baliabide ekonomikoak eskasiak direnez eta prezioak gorantz doazenez, familia batzuek ezin dute egunero arraina edo haragia gehitu dietan. Horregatik, gero eta jende gehiago joaten da kaleko janari-postuetara, gosaltzeko eta afaltzeko. Bertan, ogi zati bat erosten dute babarrunean edo lekekin, 200-500 FCFA prezioan (euro 1 baino gutxiago).

**Arroza da elikagai nagusia:** janariaren %99 arrozarekin prestatzen da. Ondoren, hauek dira gehien kontsumitzen diren beste elikagaiak hurrenez-hurren: arraina (%89), barazkiak (%87), beste zereal batzuk (%71), haragia (%61), arrautzak (%54), tuberkuluak (%47), esnea eta esnekiak (%43), frutak (%30) eta lekaleak eta fruitu lehorrak (%18). Hala ere, hori guztia **kopuru defizitarioan** kontsumitzen da, eta **kalitate eskaseko produktuak** dira. Horrez gain, ur-eskasiak eta tenperatura altuek **zenbait gaixotasun harrapatzeko arriskua areagotzen dute, esaterako, beherakoa**, eta horrek mantengaien xurgapenean eragin dezake.

2022ko datu nazionalen arabera, 15 eta 49 urte bitarteko emakumeen %52,7k **anemia** du, eta haurren %18,5 **pisu baxuarekin jaiotzen da** (2,5kg baino gutxiago). Gainera, 5 urtetik beherako haurren %17,9k **hazkunde-atzerapena** du, eta %8,1ek, berriz, **emaziazioa**. Azken zifra hori Afrikako eskualdeko batez bestekoa baino altuagoa da (%6,0). **Obesitateari** dagokionez, emakume helduen %15,1ek eta gizon helduen %4,8k pairatzen dute, eta **diabetesak**, aldiz, emakume helduen %8,3ri eta gizon helduen %8,7ri eragiten die. Horrez gain, 5 urtetik beherako haurren %2,3k **gehiegizko pisua** du, eta goranzko joera ikusten da.



Niébé-a ezaugarri nutritibo handiak (proteina, azido folikoa, burdina, zinka eta kaltzioa) dituen babarrun barietate bat da, nagusiki Mendebaldeko Afrikan landatua.

Egoera horren aurrean, hainbat plan eta akordio sortu dituzte agentzia multinazionalak, hala nola PNUDEk, UNICEFek eta UEMOAK. Horien artean, nabarmentzekoa da Elikagaien Munduko Programak (WFP) egindako **Nutrizioaren Sektore Anitzeko Plan Estrategikoa**. Plan horrek 2025erako hainbat helburu aurkezten ditu, besteak beste, honako alderdi hauetara bideratuak: desnutrizio kronikoa eta hazkunde-atzerapena murriztea, emakumeen edoskitzeko baldintzak hobetzea, eta obesitatearen aurkako borrokari ekitea ukitutako taldeetan. Esteka: [https://executiveboard.wfp.org/document\\_download/WFP-0000098864](https://executiveboard.wfp.org/document_download/WFP-0000098864).



Irrigaziorako ura eskuratzeko sistemak funtsezkoak dira klima-aldaketaren ondorioak gogor jasaten dituen Niomré udalerrian.

## HEZKUNTZA- ETA OSASUN-ZERBITZUAK

Niomré udalerriaren hezkuntza-egitura 16 lehen hezkuntzako eskolak, erdi-mailako irakaskuntzako bi eskolak (Collège d'Enseignement Moyen-CEM) eta eskolaurreko 21 zentrok (Iratzartze eta Jolas Zentroak) osatzen dute. Horrez gain, komunitate gehienetan eskola arabiar eta koranikoak daude.

Beraz, **lehen hezkuntzako 17 frantses eskola publiko baino ez daude, 47 komunitaterentzat**. Eskola eta komunitateen arteko distantziak luzeak dira, azpiegiturak ez dira oso egokiak eta irakasle asko falta dira. Erdi-mailako bi zentroen egoera da kritikoena, 47 komunitateentzat bi ikastetxe soilik baitaude. Gainera, eskola-zikloa ez ohi da osatzen; izan ere, 10 urtez ikasi ondoren (7 eta 16 urte bitartean), batxilergoko ikasketekin jarraitzeko aukera bakarra Lougara joatea da (12 kilometrotara dagoen hiriburua, eskualdearen izen bera duena). Familia- eta herri-baliabideak urriak dira ibilbide hori egiteko.

Zaurgarritasun hori are handiagoa da emakumeengan. Eskualdean, **emakume helduen %60k baino gehiagok** (gizonen %35en aldean) **ez daki irakurtzen edo idazten**. Horren arrazoia da hezkuntzarako sarbide mugatua dutela eta emakumeek hezkuntza-sisteman jarraitzeko oztopoak dituztela; izan ere, alaba nagusiek lehentasuna eman behar diete anai-arrebak zaintzeari eta etxeko lanak egiteari. Horrez gain, haien eskolatzeko-maila gizonena baino baxuagoa denez, sarritan ez dute soldatapeko enplegurik lortzen.

Nazio-mailan Genero Berdintasunerako eta Ekitaterako Estrategia Nazionala (2016-2026), Genero Indarkeria Desagerrarazteko eta Giza Eskubideak Sustatzeko Ekintza Plan Nazionala (2017-2021) eta eskualdeko hainbat ekintza-plan dauden arren, alderdi soziokulturalen ondorioz, biztanleriak hainbat praktikari eusten die: haurren ezkontza eta emakumeen genitalen mutilazioa, esaterako, Giza Eskubideen eta Senegalek hartutako nazioarteko konpromisoen aurkakoak direnak.

Osasun-zerbitzuei dagokienez, **Niomrék osasun-zentro bat eta 14 osasun-posta** ditu; dena den,

GKEari buruz: **Enraiza Derechos** erakundeak Senegalgo hainbat eskualdetan lan egin du 2016tik, Espainiako beste GGKE batzuekin eta tokiko erakunde bazkideekin lankidetzan, hala nola Enda Graf Sahel, SAPOP (Structure d'Appui aux Organisations Professionnelles et Paysannes) eta ONG3D. Bere lanaren eta 2018tik Niomrén duen presentziaren bidez, elikadura

hainbat zailtasuni egin behar die aurre, langile eta ekipamendu mediko faltagatik. Osasun-posta batzuetan gaitutako langile gutxi daudenez, pertsona batzuek ez dute osasun-tratamendurik bilatzen instalazio horietan, eta, horregatik, Niomréko erizaintzako buruarengana joan behar izaten dute gaixotasuna fase kritikora iristen denean. Zorionez, udalerriko diasporak (atzerrian bizi diren niomrétarrak) dirua bidaltzen du osasun-posta batzuk birgaitzeko eta behar bezala hornitzeko. Larrialdietarako, **gertuen dagoen ospitalea Louga hiriburuan dago, 12 kilometrotara.**

eta garapen justua eta jasagarria lortzen lagundu nahi du, giza eskubideen, generoaren eta jasagarritasunaren ikuspegitik, eta, horretarako, emakumeen eta gazteen eskubideak sustatu eta gizarte zibilaren gaitasunak indartu nahi ditu, eskubideetan eragiteko eta horiek modu eraginkorrean gauzatzeko.



Zonaldeko antolaketa-ehun sendoak emakumeen parte-hartzea eta lidergoa sustatzen du beren komunitateetan.

*“Pobreziaren aurkako borran tokiko ingurumen-kudeaketa eta kudeakela globaleko esperientzien bitartez Gipuzkoa ekosozialki eraldatzen” (2022 ERAL 0006-01) proiektuaren hezkuntza-materiala. Zabalketa Elkartek eta Behar Bidasoak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta **“Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”** elkarlanaren esparruan.*

**Egileak:** Enraiza Derechos eta Zabalketa Elkartea

**Argazkiak:** Enraiza Derechos

**Diseinua eta maketazioa:** ad hoc Komunikazioa eta Marketina L.G. BI 765-2023

Enraiza Derechos eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskeraz:  
[www.enraizaderechos.org](http://www.enraizaderechos.org)  
[www.zabalketa.org](http://www.zabalketa.org)

